

# Inmersiones 2016

# IX

# CULTOS

## Inmersiones 2016

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Artista Sortu Berrien IX Biltzarra
IX Congreso de Artistas Emergentes del País Vasco y Navarra

Abenduak 1, 2 eta 3 · Vitoria-Gasteiz · 1,2 y 3 de diciembre

9 788469 731512



# KREDITUAK
# CRÉDITOS

**INMERSIONES 2016 · CULTOS**
Artista Sortu Berrien IX. Biltzarra. 2016ko abenduak 1, 2 eta 3, Vitoria-Gasteiz
IX Congreso de artistas emergentes. Vitoria-Gasteiz. 1, 2 y 3 de diciembre de 2016

**TALDE ERAGILEA · GRUPO MOTOR**
Pili Aguado
Cristina Arrazola-Oñate
Nerea Lekuona
Anabel Quincóces

**KOMISARIOTZA TESTUAK · TEXTOS CURATORIALES**
Cristina Arrazola-Oñate
Rubén Díaz de Corcuera
Iker Fidalgo
Iñaki Larrimbe
Arturo/fito Rodríguez

**ILUSTRAZIOAK · ILUSTRACIONES**
Enrique Flores

**ARGAZKIAK · FOTOGRAFÍAS**
Jorge Salvador

**IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA BIDEOA · AUDIOVISUALES Y VÍDEO**
Eneka Aranzabal

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA · DISEÑO Y MAQUETACIÓN**
Ibon Sáenz de Olazagoitia

**ITZULPENAK · TRADUCCIONES**
Iñaki Lopez de Luzuriaga

**LIZENTZIA · LICENCIA**
Creative Commons: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/
Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Espainia · Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 4.0 España

**MOLDIZTEGIA · IMPRENTA**
Gertu

**LEGE GORDAILUA · DEPÓSITO LEGAL**
VI-415/2016

**ISBN**
978-84-697-3151-2

# AURKIBIDEA
# ÍNDICE


04 **KULTUA · CULTO**
Cristina Arrazola-Oñate

06 **ARTELANA: KULTU OBJEKTU, KULTUR OBJEKTU. · LA OBRA DE ARTE: OBJETO DE CULTO, OBJETO CULTURAL**
Rubén Díaz de Corcuera

08 **HETEROTOPIAK ETA ASKOTARIKO KULTUAK. · HETEROTOPÍAS Y CULTOS VARIOS**
Iñaki Larrinbe

10 **EZEZAGUNAREN KULTUA · CULTO A LO DESCONOCIDO**
Arturo/fito Rodríguez

12 **EMANTZIPAZIOA ARGAZKIOSTEKO AROAN · EMANCIPACIÓN EN LA ERA POSTFOTOGRÁFICA**
Iker Fidalgo Alday

16 **BOTANIKA EZKUTUA · BOTÁNICA OCULTA**
María Ptqk

18 **IRUDI AMALGAMA · IMAGEN-AMALGAMA**
Nerea de Diego

20 **EZ DA HAN TOKIRIK IZANGO INORENTZAT · NO HABRÁ LUGAR PARA NINGUNO**
Abel Jaramillo

22 **QUINCHAHUE**
Álvaro Aroca

24 **131 PROIEKTUA · PROYECTO 131**
Amaia Molinet

26 **(O)CULTO**
Histeria Kolektiboa

28 **IMAJINATZEN DUGU, IDAZTEN DUGU · IMAGINAMOS, ESCRIBIMOS**
Ivan Gómez

30 **ERRITUALAK · RITUALES**
Terri Florido

34 **PERFORM**
Ramón Churruca:

38 **ETXEKO KAPERA · CAPILLA DOMICILIARIA**
Rubén "Beca" Bécares:

40 **"TODO CAMBIA"**
Myriam Petralanda:

42 **JARDUERA PARALELOAK · ACTIVIDADES PARALELAS**
- "Aldare Pribatuak" Argazki lehiaketa · Concurso fotográfico "Altares Privados"
- Lan artistikoaren oinarri juridikoak eta fiskalitatea Tailerra · Taller Marco jurídico y fiscalidad del trabajo artístico
- "Kultuak" Erakusketa · Exposición "Cultos"
- Jendarteko bizitza · Vida social
- Neønymus: Itxiera ekitaldia · Concierto de clausura

48 **ILUSTRAZIOAK · ILUSTRACIONES**
Enrique Flores

# KULTUA

Cristina Arrazola-Oñate











Hitz horren esanahia bilatzen badugu, bi muturren artean alderrai elkar gurutzatzen duten hainbat emaitza aurkituko ditugu: alde batetik, erlijio baten adierazpen exoterikoa eta, bestetik, kulturatik edo hezkuntzatik datozen nolakotasunez jantzitako gizabanakoa: pertsona ikasia. Biak ere kultuak, baina ez nahastuta.

Eta kultuez ari garen honetan, kulturaz ere galdetu beharko dugu. Kulturak bihurgune asko ditu eta, horietako batean, gaztelaniaz RAEk, erabileratik kanpo, *kultu erlijiosoa* adiera aipatzen du. Horren bueltan, berriz, beste hau dugu: *norbaiti bere irizpidea garatzeko balio dion ezagutzen multzoa*. Kulturaren bi esanahi horiek nahiko kontraesankorrak dira elkarrekin, arrazoia eta fedea elkartuta, egungo gizakiaren urduritasunen iturri.

Hala ere, hiztegia begiratzera jarrita, ezin aipatu gabe utzi kultura hitzaren beste adiera bat, beharbada aditzera gehiago ematen duena: gaztelaniazko *cultivo*, euskarazko goldatzea, eta haren ondorioa.

Gaztelaniazko *cultivar* da bitartekoak jartzea, garatzea, lantzea, haztea, ereitea, estutzea, ematea. Hain zuzen, hori izan da Inmersionesen betiko helburua: lantzea, ereitea. Ezagutza mantendu eta zabaltzeko bitartekoak jartzea; trebetasuna eta asmamena landu edo garatzea; arteak lantzea; zurtoin gazteenak erein eta zaintzea, fruitua eman dezaten; harremana edo adiskidetasuna estutzea; espazioa ematea, denbora ematea eta arreta ematea.

Beraz, aurten ere kultura lantzearen kultua egingo dugu, edozein kultura mota dela ere, kultua edo basa, kritikoa, autokritikoa edo atsegin emaile, berri edo zahar.

Eta bederatzigarren aldia dugu dagoeneko[1].

---

1 Alegia, Inmersionesen "bederatzigarren" urtea, adiera ere urruti ez duen arren (= Jainkoari, Birjinari edo santuei dedikatutako debozio praktika, bederatzi egunez luzatzen den eskaintza).











# CULTO

Cristina Arrazola-Oñate

Si buscamos el significado de esta palabra hallamos varios resultados que se entrecruzan erráticamente entre dos polos que son, por un lado, la manifestación exotérica de una religión y, por otro lado, el individuo dotado de las cualidades que provienen de la cultura o la instrucción. Cultos ambos pero no revueltos.

Y si de cultos hablamos, tendremos que preguntar a la cultura. Es que la cultura tiene muchos recodos y en uno de ellos, ya en desuso como señala la RAE, encontramos el *culto religioso*. A la vuelta de la esquina se coloca el *conjunto de conocimientos que permite a alguien desarrollar su juicio crítico*. Dos significados de cultura bastante contradictorios entre sí, la razón y la fe unidos para mayor desazón del ser humano actual.

Pero puestos a mirar al diccionario, no podemos dejar de señalar otra acepción de la palabra cultura, quizá la más sugerente: *cultivo,* acción y efecto de cultivar.

Cultivar es poner medios, desarrollar, ejercitar, criar, sembrar, estrechar, dar. Este ha sido siempre el objetivo de Inmersiones: cultivar. Poner los medios para mantener y ampliar el conocimiento; desarrollar o ejercitar el talento y el ingenio; ejercitarse en las artes; sembrar y cuidar los tallos más jóvenes para que fructifiquen; estrechar el trato o la amistad; dar espacio, dar tiempo y dar atención.

Así que este año también rendiremos culto al cultivo de la cultura ya sea cultivada o salvaje, crítica, autocrítica o complaciente, nueva o vieja.

Y esta será la novena[1].

---

1 A) Práctica devota, dirigida a Dios, a la Virgen o a los santos, que se ofrece durante nueve días.

B) Novena edición de Inmersiones.

# ARTELANA: KULTU OBJEKTU, KULTUR OBJEKTU

Rubén Díaz de Corcuera



Duela ez asko, hementxe bota nuen kultura gehiago dagoela beharbada jende ikasiak idatzitako arteko liburu onetan, arte kritikari eta historialari zorrotzek moldatuetan, liburu bikain horiek sortzeko bidea jarrita duen artean baino, azken honen aitzakiarik gabe idazle haiek idatzi ezingo zuten arren. Gerta daiteke, orduan, luze eta zabal hedatutako ideiaren kontra, artelana, benetan kultura ez izatea, baina trukean, ordea, kultur espekulazioaren agerpena eragiteko gai izatea, etengabeko kultur sorkuntzara bultzatzea.

Argi dago artelanak objektu batzuk dituela erreferentziatzat eta testuinguru bat duela objektu horiek interpretatzeko: kultura. Hala ere, esan dezakegu artelana kulturaren beraren kontingentziatik, prekarietatetik at geratzen dela, baita ondorengotik at ere: artelana artelan izateko modua ematen duen testuingurutik, kultur edukia sortzera bultzatzen duen testuingurutik,eraldatu, handitu edo iraultzera xaxatzeko artelanak daukan gaitasunetik.

Nahiko maiz, artelanak iturri agortezinak bihurtzen dira. Irudituko luke kultura haiekin tematzen dela, eta ezin diola utzi haien berri emateari. Artelanek biltzen dituzten erreferenteek edo objektuek, presentziaz edo adierazita, ez dute artelana agortzen, eta ez dira inondik ere haien edukia. Margolan batean bildutako objektuen zerrenda borobilenak, adibidez, *Las meninas* pinturan (pertsonaiak, animalia, arkitektura eta altzariak), ez du artelanaren edukiaren berri ematen, ez da gai hura behar bezala ordezkatzeko. Artelanaren edukia gehiago da, beste gauza bat. Aldiz, objektu sorta horrek (objektu horiek, gainera, era adierazgarrian, bertan ez diren beste batzuei egiten dieten erreferentzia) artelanak eduki segmentu oso handietara bidera ditzake, garai desberdinetan eta haietara jotzen den bakoitzean. Ad Reinhardt-en *Ultimate paintings* ere, estetikaren beste mutur bat aipatzearren, gai izan dira literatura ugari sortzeko (bidenabar, pintorea horren kontra azaldu bazen ere). Horrek pentsarazten digu artelan baten edukia, atxiki dakiokeen eremu semantikoa, ezin dela zehaztu, eta ia mugagabea dela.

Artelanak edo, gutxienez, kulturak kontserbatzeko duintzat dauzkan artelan bereziak, ez dira inoiz amortizatzen, inoiz bukatzen, eta sarritan horrek egiten ditu, hain zuzen, kultuko objektu: zentzua bilatzera bultzatzeko gaitasun etengabe horrek, haien esfinge izaerak.



# LA OBRA DE ARTE: OBJETO DE CULTO, OBJETO CULTURAL

Rubén Díaz de Corcuera

Especulaba en otro lugar hace algún tiempo, sobre la posibilidad de que hubiera más cultura en los buenos libros de arte, escritos por gente culta, por sagaces y preparados críticos e historiadores del arte, que en el arte que había dado origen a tan excelentes libros, sin cuya excusa, sin embargo, estos no se hubieran podido escribir. Podría ser, entonces, en contra de la idea más extendida, que la obra de arte no formara parte de la cultura. Que fuera otra cosa. A beneficio, precisamente, de su capacidad de provocar la emergencia de la especulación cultural, de instar a una producción cultural constante.

Es obvio que la obra de arte remite a unos objetos y dispone de un contexto para la interpretación de esos objetos: la cultura. Quedando, sin embargo, a resguardo del carácter circunstancial, de la provisionalidad, podríamos decir, de la propia cultura. Quedando a resguardo incluso de la capacidad de la obra de arte de incitar a la modificación, ampliación o subversión del contexto en el que es posible como obra, del contexto que estimula la producción de contenido cultural.

Con cierta frecuencia, las obras de arte devienen inagotables. Parecería que la cultura se obsesiona y no puede evitar ocuparse permanentemente de ellas. Los referentes u objetos que contiene una obra, por presencia o por representación, no agotan la obra y no constituyen, en ningún caso su contenido. La más exhaustiva relación de los objetos contenidos en una pintura como, por ejemplo, *Las meninas* (personajes, animal, arquitectura y muebles) no da entera cuenta del contenido de la obra, se muestra incapaz de sustituirla satisfactoriamente. El contenido de la obra es más y otra cosa. Pero ese conjunto de objetos (y la significativa referencia de esos objetos a otros ausentes) sí es susceptible de orientar las obras de arte hacia ingentes segmentos de contenido. En cada época y cada vez que se acude a ellas. Incluso las *Ultimatepaintings* de Ad Reinhardt, por irnos a otro extremo estético, han sido capaces de generar abundante literatura (por cierto, contra la prescripción expresada en contra por el pintor). Lo que nos hace pensar que el contenido de una obra, el campo semántico que se le puede adjuntar, es indeterminable y, virtualmente, ilimitado.

Las obras de arte, o al menos, aquellas obras privilegiadas por la cultura como dignas de ser conservadas, no se amortizan nunca, nunca se acaban. Es este carácter al mismo tiempo inagotable e inescrutable lo que las convierte a menudo en objetos de culto. Esta incesante capacidad de estimular la búsqueda de sentido, su carácter de esfinges.

# HETEROTOPIAK ETA ASKOTARIKO KULTUAK

Iñaki Larrinbe














Foucault, filosofo nabarmena ez ezik, Pariseko 68ko maiatzeko ikasleen erreboltaren ideologo handietako bat izan zen. Zorrotada iraultzaile horretatik abiatuz, mundua neurrigabe hasi zen eraldatzen: krisi ekonomikoak, gatazka politikoak eta sozialak, hiri-espazioen eraldaketak… asko laburbilduz: bazterrean utzi genituen Erdi Aroko bizimoduak –pertsonak eta gauzak kokatzen ziren lurralde hutsak– eta harremanen mataza bihurri batean murgildu ginen. Mundua ez zegoen ordurako modu lineal eta lau batean esplikatzerik. Erreala zenak harremanezkoari utzi zion bidea. Foucaultek, orduan, hitz berri bat sortu zuen unibertso berri bihurri hori izendatzeko: heterotopia, alegia, toki *hetero* bat: anitza, askotarikoa, nahasia, sarean… heterogeneoa. *Espazio publikoak* eta *espazio pribatuak* aipatzen hasi ziren, toki abstraktuei, ez kartesiarrei, erreferentzia egiteko.

Egun bizi garen *etxe heterotopiko* horren barruan, ordea, gela batzuetan, dena modu askoz biziago, argiago batean gertatzen da. Foucaultek azaldu zuenez: *museoak, liburutegiak; museoak eta liburutegiak denbora gailurreraino metatzen eta pausatzen inoiz amaitzen ez duten heterotopiak dira, baina XVI. mende arte, are, XVII. mende amaiera arte, museoak eta liburutegiak norbaiten hautuaren adierazpidea ziren. Aldiz, gure modernitateko kontua da dena metatzeko ideia, artxibo moduko bat osatzeko ideia, toki batean denbora guztiak, garai guztiak, forma guztiak, zaletasun guztiak ixteko asmoa, denbora guztiak biltzen dituen eta, aldi berean, denboratik kanpora eta haren erasanetik at dagoen toki bat apailatzeko ideia, baita era horretan toki higiezin batean dagoen denboraren betiereko metaketa mugagabe moduko bat antolatzearen proiektua ere. Museoak eta liburutegiak XIX. mendeko mendebaldeko kulturaren berezko heterotopiak dira.*

Kultuko tokiak ere heterotopikoak dira: sinagogak, elizak… fikziozko espazioak eta heterogeneoak direlako, errituz, sinboloz eta harremanez josiak. Alde horretatik, museo bat tenplu bat ere bada, nahiz eta haren kultuaren objektua jainkoa ez izan, konnotazioz betetako objektu sorta bat baizik.
















# HETEROTOPÍAS Y CULTOS VARIOS

Iñaki Larrinbe

Foucault fue, además de notable filósofo, uno de los grandes ideólogos de la revuelta estudiantil de mayo del 68 en París. A partir de ese borbotón revolucionario, el mundo comenzó a mutar de manera exponencial: crisis económicas, conflictos políticos y sociales, transformaciones de los espacios urbanos… Resumiéndolo mucho: dejamos en el trastero los modos de vida medievales –territorios vacíos dónde se situaban los individuos y cosas- y nos sumergimos en el seno de un complejo entramado de relaciones. El mundo no podía explicarse ya de manera lineal y plana. Lo real dejó paso a lo relacional. Foucault, entonces, acuñó un nuevo término para nombrar a ese enmarañado nuevo universo: heterotopía. Es decir, un lugar *hetero*: diverso, múltiple, mezclado, en red… heterogéneo. Se empezó a hablar, por ejemplo, de *espacio público* y de *espacio privado* para referirnos a lugares abstractos, no cartesianos.

Dentro esa gran *casa heterotópica* en la que actualmente residimos hay habitaciones donde todo esto se da de una manera más intensa, más clara. Foucault explicaba: *los museos, las bibliotecas; museos y bibliotecas son heterotopías en las que el tiempo no cesa de amontonarse y posarse hasta su misma cima, cuando hasta el siglo XVI, hasta finales del siglo XVII incluso, los museos y las bibliotecas constituían la expresión de una elección particular. Por el contrario, la idea de acumularlo todo, la idea de formar una especie de archivo, el propósito de encerrar en un lugar todos los tiempos, todas las épocas, todas las formas, todos los gustos, la idea de habilitar un lugar con todos los tiempos que está él mismo fuera de tiempo, y libre de su daga, el proyecto de organizar de este modo una especie de acumulación perpetua e indefinida del tiempo en un lugar inmóvil es propio de nuestra modernidad. El museo y la biblioteca son heterotopías propias de la cultura occidental del siglo XIX.*

Los lugares de culto son heterotópicos también: las sinagogas, las iglesias... Porque son espacios ficticios y heterogéneos cargados de ritos, símbolos y relaciones. En ese sentido un museo es también un templo, aunque su objeto de culto no sea un dios, sino una serie de objetos cargados de connotaciones.

# EZEZAGUNAREN KULTUA

Arturo/fito Rodríguez



*A.I.*k, bere proposamen artistikoari forma emateko, *kultu*aren ideia ikertzeko ahalegina egin zuenean, berehala jabetu zen erabaki hori ez zela samurra izango. Kontzeptu hori nolabaiteko ordenaz janzteko eta lantzen hasteko hura lotzen saiatu bezain laster, ezin konta ahala aukera ireki ziren, ikuspegi kopuru izugarri bat, eta horrek eragotzi egiten zigun jomuga esanguratsu bat, gure azterketetarako ipar bat aurkitzea. Gai terminologikoa, polisemia, artxiboa eta adierak… dena korapilo bihurri eta labainkor baten inguruan harilkatzen zen, kontraesanez eta era guztietako tranpez josia.

Hori lehenago ere gertatu zitzaigun, ekologia, bake, erresistentzia edo diruaren gaia lantzeko orduan. Bagenekien arteari buruzko ikerkuntza lurralde askoz anitzagoa eta moldakorragoa zela beste arlo batzuetan baino; bagenekien kontu hauek jarduera artistikoaren horizonteak zabaltzen zituztela, zeharkakotasunetik eta beste ezagutza arlo batzuetatik azterbideak eta tresnak mailegutan hartuz. Hori oso iradokitzailea da, baina baita arrisku bat ere, trabatzera edo ekintza-ezara eraman baitzezakeen, eta hori da txarrena arterako eta kulturarako.

*A.I.*k ez zuen bi bider pentsatu. Bagenekien ahalegina ausarta zela, baina hori zela, egun, sistema bakarra beste diziplinen zurruntasunean gertatzen ez diren esperimentazio mailak aurkitzeko. Bagenekien, laburbilduz, itxurazko anabasa hori, benetan, ezagututakoari buruzko gogoetan oinarritutako ezagutza metodoa zela, hartara ezagutza hori auzitan jartzeko, dogmak errefusatzeko eta inposizioez askatzeko, subjektibotasun sortzailea eta subjektuartekotasun sortzailea berreskuratzeko.

Artista kolektiboa ginen aldetik, *A. I.*k (Asociación Inmersiones-ek), ulertu genuen horrela, beharbada, gure *kultu* bakarra talde lanaren aldeko eta kulturaren ekoizpena lantzeko forma berrien aldeko formula irmoa zela. Era horretan, proiektu hau ulertu genuen, informazio geruzak askotariko ikuspenen bitartez gainjartzen joango ziren esplorazio kolektiboa zela eta, hartara, ezagutza berri bat sorraraziko genuela. *Ezagutza ezezagun* bat, paradoxa bat, eta haren kultua egin genuen eta, gero, berehala, zalantzan jarri genuen.



# CULTO A LO DESCONOCIDO

Arturo/fito Rodríguez

Cuando *A.I.* intentó centrar su investigación en la idea de *culto* para dar forma a su propuesta artística se dio cuenta de lo complicado de su decisión. En el mismo momento de intentar amarrar dicho concepto para someterlo a un cierto orden que le permitiese comenzar a trabajar, se abrieron un sinfín de posibilidades, una ingente cantidad de perspectivas que le impedían dar con un horizonte significativo, con un norte para sus indagaciones. La cuestión terminológica, la polisemia, la semiótica, el archivo y las acepciones…, todo se arremolinaba en un nudo rebelde y escurridizo al que le brotaban constantemente contradicciones y trampas de todo tipo.

Era algo que ya le había sucedido con anterioridad al abordar el tema de la ecología, la paz, la resistencia o el dinero. Sabía que la investigación en el arte es un territorio mucho más heterogéneo y dúctil que en otros campos; sabía que estas cuestiones ampliaban los horizontes de la práctica artística porque se realizan desde la transversalidad y tomando prestados de otros campos de conocimiento algunos de sus métodos y herramientas; algo muy sugerente pero también un riesgo que le podía llevar al bloqueo o a la inacción: lo peor para el arte y la cultura.

*A.I.* no se lo pensó dos veces. Sabía que su intento era osado, pero que era el único sistema para encontrar grados de experimentación que hoy no tienen lugar en la rigidez de otras disciplinas. Sabía, en definitiva, que este aparente caos constituía en realidad un método de conocimiento basado precisamente en reflexionar sobre lo sabido para ponerlo en cuestión; para objetar dogmas y liberarse de imposiciones, para recuperar la subjetividad creadora y la intersubjetividad creativa.

Como artista colectivo que era, *A. I.* (Asociación Inmersiones) entendió así que, quizá, su único *culto* estaba justamente en su decidida fórmula por el trabajo colectivo y por nuevas fórmulas de abordar la producción cultural.

Y así entendió este proyecto, como una exploración colectiva en la que se irían superponiendo capas de información a través de distintas visiones y que harían emerger un conocimiento nuevo. Un *conocimiento desconocido*, una paradoja, a la que rindió culto para dudar de ello inmediatamente después.

# EMANTZIPAZIOA ARGAZKIOSTEKO AROAN

Iker Fidalgo Alday

**Joan Fontcubertaren (Barcelona, 1955)** ZAS Kultur espazioko interbentzioak inaugurazio lanak egin zituen Inmersiones-2016rako, eta egungo irudiaren aroaren gaiari heldu zion: ekoizpen modu berriak, dibulgazio espazio berriak eta horiek ikusizko arteekin duten erlazioa. Egileak hitz berri bat sartu du *La furia de las imágenes: Notas sobre la postfotografía* (Galaxia Gutenberg, 2016) bere saiakerari izena emateko, eta asmoen deklarazio gisa balio du argazkilaritzaren adierazgarritasuna gainditu duen testuinguru bat proposatzeko. José Luis Brea-k jada aro hori sartua zuen edizio digitalaren balioa nabarmentzeko emultsio kimikoaren garaia behin gaindituta (Brea, 2002), eta Joan Fontcubertak eremu analitiko bat ireki du makina fotografikoaren gizarte funtzioa birdefinitzeko. Lerro hauek ondorio batzuk ateratzen dituzte planteamendu horiei buruz, eta laburbilpen lana egin gabe, egile katalanak botatako *input* batzuk islatzen ditut.

Begian oinarritutako gure gizartea gai da biziaren garrantzia haren ikusgarritasunaren arabera hierarkizatzeko. Ikusmena gainontzeko zentzumenei gailendu zaie, eta gure gaitasun emozionalean eragiteko ildoak ezarri ditu. Horri buruz, egungo jarduera artistiko garaikideak gai dira analisi, diagnostiko eta juiziorako erreminta berri eta zorrotzak emateko, baina arte merkatuaren ezpata aho bikoitzak lagundu besterik ez du egiten izurrite bat gero eta gehiago hedatzeko. Ondorioz, gure zentzumenak atrofiatu eta sentikortasun kritikoa galarazteko arriskua dugu.

Diskurtso handien gainbeherarekin batera, artearen emantzipazio asmoek sinesgarritasuna galdu eta artea kemen osoz gauza mikroen garrantzira bideratzen hasi zenean, asmo horiek eremu desakralizatu batean sartu ziren eta, bertan, auraren *banalizazioa*k gain-ekoizpenaren eta trabaketaren metxa piztu zuen.

Kultua, orduan, agertzen da irudiak eta ikusizko kultura etengabe eta geldiezin adierazten diren testuinguru batean, gailu eramangarrietan eta sare sozialetan, eta horrek harremanetan jartzeko dugun modua baldintzatzen du. Paradigma horren menpekotasunez, gure egunerokotasunak gainezka egiten du momentuetako bakoitzean.

Ikusizko sorkuntza, orduan, inguratzen gaituen errealitatearekin konektatzeko modu bat bihurtzen da eta, gainera, erantzuten dio harreman birtual berriek proposatzen duten jendartean egoteko beharrizanari. *Selfie*en bitartezko *autorreferentzia* etengabeak, (Facebookeko) egoeren eguneratzeek eta gure bizitza pribatua erregistratuta ziberespaziora jaurtitzeak transzendentzia beharrizan bati erantzuten diote, nahiz eta hori berria ere ez den inondik ere giza jokabidean, baina orain neurriz gainezka egiten du muga guztiak hautsi arte. Horri uztartu egiten zaio, gainera, gizartearen ikusizko hezkuntza batere heldutasunik gabe dagoela era kezkagarrian eta, ondorioz, hori askatasuntzat jo daiteke faltsuki, emantzipazioaren eta norbere irudia kudeatzearen diskurtsoz mozorrotuta: menpekotasun eta alienazio ahalegin bat.

Hari beretik tiraka, manipulazio politikoaren eta gizarte kontrolerako ahalegin betean, komunikazioa kudeatzeko espazioak sortu dira eremu emozionalean. Egia da konektatuta dagoen gizarteak bereizi, ebaluatu eta birkodetu dezakeen informazio mota eskuratzen duela (Castells, 2009), baina ez dago zalantzarik menpekotasun espazioen mehatxuaz.

Beraz, sorkuntzaren edozein emantzipazio ahaleginek ezagutu egin behar du *argazkiostea*ren aroa eszenategitzat aldarrikatzen duen joko eremua eta, hortik abiatuz, muga jarri interpelazio etengabeak itsututako bizi espazioko jokaerei zein harremanei.

Arte garaikideari, orduan, kontsumo sutsuaz ohartzea dagokio eta, aldi berean, beharrizanak, exijentziak eta premiak identifikatzea. Espazioa irabazteko modu bakarra da askotariko sentsibilitateak elkar topatuko duten ahalduntze guneak sortzea. Masa kulturaren inposizio mekanika auzitan jarriko duten kontakizunak partekatu eta sortuz, bultzatu egingo ditugu mikropolitikako erresistentzia babesak eta partekatutako subjektibotasunak. Beharbada hori da modu onena lan poetikoaren bitartez aktiba daitekeen espazio politikoa aldarrikatzen jarraitzeko.

---


1. Brea, J. L. (2002). *La era Postmedia: Acción Comunicativa, Prácticas (Post)artísiticas y Dispositivos Neomediales*. Consorcio Salamanca.
2. Castells, M. (2009). *Comunicación y poder*. Alianza Editorial.



# EMANCIPACIÓN EN LA ERA POSTFOTOGRÁFICA

Iker Fidalgo Alday

La intervención de **Joan Fontcuberta (Barcelona, 1955)** en el espazio ZAS Kultur, que sirvió como inauguración de la edición de Inmersiones 2016 versó sobre la actual era de la imagen, las nuevas maneras de producción, los espacios de difusión y su relación con las artes visuales. La introducción del término que da nombre a su ensayo *La furia de las imágenes: Notas sobre la postfotografía* (Galaxia Gutenberg, 2016) sirve como declaración de intenciones en la que propone un contexto que ha superado la relevancia de lo fotográfico. José Luis Brea (Brea, 2002) ya introdujo este periodo temporal para subrayar el valor de la edición digital superando el tiempo de la emulsión química y Joan Fontcuberta abre un espectro analítico mediante el cual redefine la función social del dispositivo fotográfico. Estas líneas lanzan algunas conclusiones al respecto de estos planteamientos y aunque sin comportarse como un resumen, reflejan varios de los *inputs* lanzados por el autor catalán.

Nuestra sociedad ocularcentrista es capaz de jerarquizar la importancia de lo vital en virtud de su visibilidad. La visión prima sobre el resto de los sentidos estableciendo líneas capaces de influir en nuestra capacidad emocional. Sobre esto, las prácticas artísticas contemporáneas son capaces de proporcionar nuevas e incisivas herramientas de análisis, diagnóstico y juicio, pero el doble filo del mercado del arte, no hace sino contribuir a una plaga cada vez más expansiva en la que nuestros sentidos corren peligro de atrofia y de pérdida de sensibilidad crítica.

Cuando ante la caída de los grandes discursos los anhelos emancipadores del arte perdieron su credibilidad para centrar sus energías en la importancia de lo micro, entraron también en un terreno desacralizado en el que la *banalización* del aura hizo prender la mecha de la sobreproducción y el atragantamiento.

El culto aparece entonces en un contexto en el que las imágenes y la cultura visual se manifiestan de manera constante e imparable, en dispositivos portables y redes sociales que condicionan nuestra manera de relacionarnos. La dependencia de este paradigma define la pleitesía con la que nuestra cotidianeidad es inundada en cada uno de sus momentos.

La creación visual se erige entonces como una forma de conectar con la realidad que nos rodea, además de responder a necesidades de sociabilidad que las nuevas relaciones virtuales proponen. El narcisismo de la *autorreferencia* constante traducida en *selfies*, actualizaciones de estados y registros de nuestra vida íntima lanzados al ciberespacio, responde a una necesidad de trascendencia que sin ser para nada novedosa en el comportamiento humano, se sobredimensiona hasta límites incalculables. Esto unido a una sociedad cuya educación visual se encuentra aún en periodo de preocupante inmadurez puede ser entendido como una falsa libertad que disfraza de discursos de emancipación y autogestión de la imagen un intento de dominación y alienación.

Dentro de este sentido, la manipulación política y los intentos de control social, pasan entonces por la creación de espacios de gestión de la comunicación a través del espectro de lo emocional. Aunque sin duda la sociedad conectada tiene acceso a un tipo de información que es capaz de discriminar, evaluar y recodificar (Castells, 2009), la amenaza de los espacios de dominación es inapelable.

Por tanto, cualquier intento emancipador a través de la creación, debe conocer el campo de juego en donde la era *postfotográfica* se reivindica como un escenario, y desde ahí, acotar comportamientos y relaciones en un espacio vital cegado por la interpelación continua.

Al arte contemporáneo le corresponde entonces ser consciente del febril consumo y ser capaz de identificar necesidades, exigencias y urgencias. La única forma de ganar terreno pasa por crear lugares de empoderamiento en donde las diferentes sensibilidades puedan ser puestas en común. Compartir y crear relatos que desafíen la mecánica impositiva de la cultura de masas potencia parapetos de resistencia micropolítica y subjetividades compartidas. Puede que esta sea la mejor manera de seguir reivindicando el espacio político que debe ser activado por el trabajo de lo poético.

---


1. Brea, J. L. (2002). *La era Postmedia: Acción Comunicativa, Prácticas (Post)artísiticas y Dispositivos Neomediales*. Consorcio Salamanca.
2. Castells, M. (2009). *Comunicación y poder*. Alianza Editorial.


Joan
fontcuberta
campanas
proporciona
millones DE IMÁGENES DIARIAS
Marta
Jeff GUESS
Jorge Luis Mazo
Penélope
Philip SMITH
Robin HEWLET
fotografías
Remi Galliard
Manu
LUKSH KURT
CAVIEZEL
Albert
lenguaje
STREET VIEW
GET out CLOSE
(referencias)
ME GUSTA ESTAR AQUÍ
NO ME ATREVO NI A PRESENTARLE
¿QUÉ QUEDA DE LA FOTOGRAFÍA?


Postfotografía:







# BOTANIKA EZKUTUA · BOTÁNICA OCULTA

María Ptqk

## GABINETE SYCORAX-EN IBILBIDE BAT, NATUR ZIENTZIEN ALDERANTZIZKO MUSEOA

1509an, Charles de Bovelles filosofo eta zientzialariak piramide baten formaz sailkatu zituen bizi formak. Goi-goian gizona zegoen, gizonezkoa, bera baita adimenez jantzitako izaki bizidun bakarra, eta piramidea, erpin partekatu horretatik, jaitsi egiten zen: alde batetik, gizakiaren hierarkian behera eta, bestetik, natura munduan behera. Gizakiaren aldean, gizonaren azpian emakumea zegoen –sentikorra bai, baina ez adimenduna– eta, haren azpian, hurrenez hurreneko mailetan, bizioaren askotariko adierazpenak. Bestetik, natur munduan, gizonaren azpian eta emakumearen maila berean, Bovellesek animalia kokatzen zuen –sentikorra bai, baina ez adimenduna– eta, gero, landarea –bizia, baina ez sentikorra eta ez adimenduna– eta, azkenik, bizigabearen planoan, harria.

Bovellesek gizatasunaz egindako hierarkia, gizona emakumearen gainetik jarriz, egun zientifikoki eutsiezina den bezala, natur munduarena, non landareak animaliez azpiko bizi forma bat diren, ideia eztabaidaezina da egun ere. Nola kultura zientifikoan, hala herrikoian –salbu eta fikzio espekulatibo batzuetan, adibidez, Ward Mooreren *Zuek uste baino berdeago* (1947)– landareak bizi forma subsidiariotzat jotzen dira, harkaitzak baino biziagoak bai, eta beharbada sentikorrak ere, baina inolaz ere ez adimendunak. Aristotelesen garaitik, berak arima (*anima*) mugimenduarekin lotu baitzuen eta, hartara, landareak arima txikien erresumara zokoratu, eta Bibliaraino, hor landareak ia ez baitira agertzen (eta uholde handiaren mito fundazionalean baztertuta utzi zituen, Noek ahaztuta), zoozentrismoaren kultua izan da natur mundua ulertzeko ohiko modua. Giza espeziea espezie guztien eta animalien biziaren erregea delako ideian oinarritzen da eta, beraz, bizi forma ororen eredua omen da.

Benetan, ordea, XVIII. mendetik froga zientifikoek agerian utzi dute landareak bizi forma adimendunen multzokoak direla. Darwinen ikerketek, lehenengoz, mugimendua zutela azaldu zuten, baita *adimen* hitza aipatu ere; XX. mendean egindako esperimentu ugarik, bestalde, Peter Tompkins eta Christopher Bird-en *Landareen bizitza sekretua* klasikoak biltzen dituenak adibidez (1973), berdina diote. Bada, horiek abiapuntu hartuta, botanikako hainbat pertsonalitatek, azken urteotan, errotik berraztertu dituzte mito zoozentrikoa eta landare unibertsoari buruzko gure irudipenak. Stefano Mancuso Nazioarteko Landareen Neurobiologia Institutuko zuzendariak baieztatu du landareek animalien bost zentzumenak dituztela, baita beste hamabost ere (esate baterako, zehaztasunez hezetasun maila neurtzeko gaitasuna edo atmosferako presioa), baita oroimena, ikasteko

## UN RECORRIDO DE GABINETE SYCORAX, MUSEO INVERTIDO DE CIENCIAS NATURALES

En 1509, el filósofo y científico Charles de Bovelles clasificaba las formas de vida con la forma de una pirámide. Presidida por el hombre, en masculino, único ser vivo dotado de inteligencia, la pirámide descendía desde esa cúspide compartida, por un lado hacia la jerarquía de lo humano y por otro hacia la del mundo natural. En el lado de lo humano, bajo el hombre se hallaba la mujer –sensible pero no inteligente– y bajo esta, en sucesivos escalones, diferentes manifestaciones del vicio. En el lado del mundo natural, por debajo del hombre y en el mismo nivel que la mujer, Bovelles situaba al animal –sensible pero sin inteligencia– seguido de la planta –viva, pero ni sensible ni inteligente– y finalmente, en el plano de lo inerte, la piedra.

Si la jerarquía de lo humano de Bovelles, que defendía la superioridad del hombre sobre la mujer, hoy ya no puede sostenerse científicamente, la del mundo natural, según la cuál las plantas constituyen una forma de vida inferior a los animales, sigue siendo una idea indiscutida. Tanto en la cultura científica como en la popular –con la excepción de algunas ficciones especulativas como *Más verde de lo que creéis* (1947) de Ward Moore– las plantas son consideradas como una forma de vida subsidiaria, más vivas que las rocas y tal vez sensibles, pero de ninguna manera inteligentes. Desde Aristóteles, que al asociar el alma (*anima*) con el movimiento relega a los vegetales al reino de las almas menores, hasta la Biblia, en la que apenas aparecen plantas y que en el mito fundacional del diluvio las abandona a su suerte, olvidadas por el mismísimo Noé, el entendimiento común del mundo natural ha estado marcado por el culto al zoocentrismo, basado en la idea de que la especie humana es la reina de todas las especies y la vida animal, el modelo de toda forma de vida.

La realidad, sin embargo, es que al menos desde el siglo XVIII hay evidencia científica de que las plantas pertenecen al elenco de las formas de vida inteligentes. Partiendo de las investigaciones de Darwin, el primero en atribuirles movimiento y utilizar la palabra *inteligencia,* y de los numerosos experimentos llevados a cabo en el siglo XX, como los que recoge el clásico *La vida secreta de las plantas* (1973) de Peter Tompkins y Christopher Bird, diversas personalidades de la botánica han puesto en marcha en estos últimos años una revisión profunda del mito zoocéntrico y de nuestras asunciones sobre el mundo vegetal. Stefano Mancuso, director del Instituto Internacional de Neurobiología Vegetal, afirma que las plantas poseen los cinco sentidos de los animales y otros quince más (como la habilidad de medir con precisión



http://www.gabinetesycorax.org

gaitasuna eta seinale kimiko eta elektrikoen sistema sofistikatu bat ere (artean, deszifratu ez diren korapiloak, Mancusoren aburuz). Horien bitartez, landarediko izakiak elkarrekin eta animaliekin komunikatzen dira, baita animalia batzuk oinpean hartzera heldu ere, ugalketan lagun diezaieten horietako batzuk konbentzituz (hori gertatzen baita intsektuekin). Beren tokitik mugitu gabe, landareak planetan zehar lekualdatzen dira espezie gisa; gizakion denboraren zentzu desberdina dute eta, horregatik, ikusezinak dira gure begien aurrean. Sare organismoak dira, bizi organorik gabeak, ez dute aginte gune zentralizatu bat, bizi funtzio sakabanatuak baizik, eta sare formako adimen deszentralizatu bat hezurmamitzen dute, erresilientziarako bereziki egokia.

Egungo galdera, natur ingurunearen hondamendia iragarri dela ikusita, hauxe da: gai izango ote gara kultu zoozentrikoa –eta, ondorioz, gizakia espezie gorena dela– gainditzeko, eta Donna Haraway biologo, filosofo eta kontzientziaren historialariak poetikoki *lankidetzaz bizirauteko espezieen arteko aliantzak* deitu dituena esploratzeko? Epe luzeko ibilbidea da, nolabait ere Ekuadorrek dagoeneko hasitakoa, haren konstituzioan naturaren eskubideak kontsakratu baititu, eta horrek eramango bide gaitu *landaretasuna* moduko zerbait adieraztearen puntu iraultzaile eta ezezagun batera, landare izakiaren funts batera, animaliatasunaren edo gizatasunaren baliokide, planetako bizikidetzako erronka berriei aurre egiteko.

niveles de humedad o presión atmosférica), además de memoria, capacidad de aprendizaje y un sofisticado sistema de señales químicas y eléctricas (jeroglíficos aún sin descifrar, en palabras de Mancuso) con el que los seres vegetales se comunican entre sí y con los animales, llegando incluso a dominar a algunos de estos para que les presten servicios necesarios a su reproducción (es lo que ocurre con los insectos). Sin moverse de su sitio, las plantas se desplazan en el planeta como especie, habitantes de una temporalidad distinta de la humana y por ello invisible a nuestros ojos. Como organismos en red, sin órganos vitales ni un puesto de mando centralizado pero con funciones vitales distribuidas, encarnan una inteligencia descentralizada y reticular, especialmente apta para la resiliencia.

La pregunta hoy, frente al colapso anunciado del medio natural, es si seremos capaces de rebasar el culto zoocéntrico –y su corolario: lo humano como especie superior– y explorar lo que la bióloga, filósofa e historiadora de la conciencia Donna Haraway llama poéticamente *alianzas entre especies para una supervivencia colaborativa*. Un camino de largo recorrido, que en cierto modo ya ha iniciado Ecuador al consagrar en su Constitución los derechos de la naturaleza, y que nos llevaría al punto incierto y revolucionario de tener que articular algo así como una forma de *plantidad*, una esencia del ser-planta equivalente a la animalidad o la humanidad con la que afrontar los nuevos retos de la convivencia planetaria.

# IRUDI AMALGAMA · IMAGEN-AMALGAMA

Nerea de Diego

## BILDUMA PERSONAL BATEN KONTAKIZUN LABURRA

Bilduma bati pasioz, bat-batekotasunez eta, sarritan, ezustean ekiten zaio; *aldez aurreko jakite lausoa eta subjektiboa* da, hala esango luke Derridak[1].

Gogoan dudala, dena toki batean hasten da. Argazkia Bolonia erdialdeko kale batean atera zuten kamera automatiko batez, 1996ko neguan. Une horretan, ni han bizi nintzen, eta kale gehienen ertzak estaltzen zituzten arkupeetatik paseatzen nintzen. Irudian agertzen den gaia txoko batean zegoen, joan-etorri gutxiko kale bateko atari batean. Argazkia gauez atera nuen.

Hasieratik, toki hori atzemateko, gordetzearren erregistratzeko gogo bat da ohartuki, gero tokia zabaldu eta irisgarria izan dadin. Hala ere, lehen objektu bat ez da bilduma, atzera begirako begirada bat behar baita narrazioa manipulatu eta hasiera sortzeko[2]. Argazkia atera nuen elementu horien antolamenduan zerbaitek bereziki erakartzen zidalako. Orduan, segur aski ez nintzen saiatu haren berri hitzez ematen; baina ebaki bat ireki, ireki zuen, eta luze gabe bilduma bat bihurtu zen, zirrikitu horretatik isuritako kemenari esker.

Pixkanaka handitu egin zen irudien kopurua. Ordurako, begiradak ez du topatzen, bilatzen baizik; eta espezializatzen da, eta bildumatutako objektuak izen bat hartzen du: Andra Mariaren herri aldareak. Geroago, souvenirrak gehitzen dira, eta irudia tramankulu bihurtzen da. Erantzunik gabeko galderak. Bilduma, bere sorreratik, ezkutuari uztartuta egon da, tenpluetan, jauregietan, kriptetan.

Nire jarduera artistikoaren zati izatearen erabaki bat da beti, prozesu mantso bat bezala, estalita irauten duena, proiektua izateko zain. Aldiz, gainezka egiten jarraitzen du, eta gero eta zailagoa da hari eusten. Souvenirrak lurzorurantz eta paretetarantz labaintzen dira. Irudiak beste toki batzuetatik heltzen hasten dira, kolaboratzaileek bidalita… Bilduma taldeko zerbait bihurtzen da. Herri aldareak bildumatzeko irrika horretan, *badago oroimen kolektiboaren aztarnen bilguneekiko erakarmen bat*[3], baina batez ere sortzen dituen prozesu kolektiboekikoa.

Toki sakratuak bisitatzen ditut, hilerriak, baselizak, agerpenen kondairak dituzten santutegiak. Eta txundituta erregistratzen dut masan ekoitzitako produktuen amalgama. Irudiak metatzen jarraitu dut, fedea eta erlijio proselitismoa biltzen duen *txatarra fanatiko* hori[4]. Herriaren gurtzak, non-nahi agertzen dela ere, objektu ugari izaten ditu aldean, betiere kuttunetik eta souvenirretik gertuago subjektu espiritualetik baino. Santutegi katolikoetatik ibiltzea materialen bilketarako iturri bihurtzen da. Katolizismoa irudi umilen eta bildumagarrien hornitzaile handia da.

Bukatzeko, Andra Marien aldare herrikoiak bildumatzeak, ikuspuntu bakar batetik landu ez daitekeen izakia den aldetik, utzi egiten dio bigarren planoan dagoen prozesu ezkutu

## BREVE RELATO DE UNA COLECCIÓN PERSONAL

El inicio de una colección suele ser pasional, espontáneo y, a menudo, accidental; *pre-saber borroso y subjetivo* diría Derrida[1].

Según recuerdo todo empieza en un lugar. La fotografía fue tomada en una calle del centro de Bolonia, con una cámara automática en el invierno de 1996. Por entonces yo vivía allí y paseaba por los porches que jalonan la mayoría de sus calles. El motivo que aparece en la imagen se encontraba en un rincón, en un pórtico de una calle poco transitada. Saqué la fotografía de noche.

Desde el principio hay una intención consciente de capturar ese lugar, de registrarlo para guardarlo, para hacerlo desplegable y accesible a posteriori. Sin embargo, el primer objeto no es colección, ya que es necesaria una mirada retrospectiva para manipular la narrativa y crear el inicio[2]. Tomé la fotografía porque había algo en la disposición de esos elementos que me atraía especialmente. Entonces probablemente no intenté verbalizarlo; pero sí abrió una brecha, un intersticio por el que se coló la potencia de lo que al poco se convirtió en colección.

Paulatinamente el número de imágenes se multiplica. La mirada ya no encuentra sino que busca; y se especializa, y el objeto coleccionado toma un nombre: altares populares marianos. Más tarde se incorporan los souvenires y la imagen se torna artefacto. Preguntas sin respuesta. La colección, desde su origen, ha estado ligada a lo oculto, en templos, palacios, criptas.

Siempre la decisión de que forma parte de mi práctica artística, como un proceso reposado, que permanece latente, en espera de ser proyectado. Pero continúa desbordándose y cada vez se hace más difícil contenerlo. Los souvenires se deslizan hacia suelo y paredes. Las imágenes comienzan a llegar desde otros lugares, enviadas por colaboradores. La colección se colectiviza. En esta pulsión por la colección de altares populares hay *una atracción por los repositorios de trazos de la memoria colectiva*[3] pero sobre todo por el propio proceso colectivo que los genera.

Visito los lugares sagrados, cementerios, ermitas, santuarios con leyendas aparicionistas. Y registro, estupefacta, la amalgama de productos producidos en masa. Continúo recopilando imágenes, *chatarra fanática*[4] que recoge la fe y el proselitismo religioso. La devoción popular, allá donde esté, se presenta acompañada de una proliferación de objetos que están más próximos al amuleto o al souvenir que al sujeto espiritual. Recorrer los santuarios católicos se convierte en una fuente de recogida de material. El catolicismo es un gran suministrador de imágenes modestas y coleccionables.

Finalmente, la colección de altares populares marianos, como ente inabordable desde un único punto de vista, deja de ser un proceso oculto en un segundo plano para saltar a




izateari eta, trukean, plazara salto egiten du bere galdera, kontraesan eta zalantza guztiekin. Andra Maria interesatzen zait emakumezkoaren alde sakratuari lotutako inplikazio antropologikoak dituen neurrian, Eliza Katolikoak propaganda politikoko armatzat erabili duen neurrian, mitoarekin duen erlazioagatik, haren debozioak herrian pizten duen jaieragatik, haren formen anbiguotasunagatik, irudiaren historian haren adierazpenak jokatu duen funtzioagatik, gordetzen dituen sinkretismoengatik, egungo zenbait diseinatzaileren baitan pizten duen liluragatik, gay ikonoa izateagatik, feminismoaren aldarrikapenaren sinbolo gisa adierazten duen perbertsioagatik, Biblian ia ez delako aipatzen, hartu dituen konta ezin ahala deiturengatik, ezarpen kolonialetan egindako lan erabakigarriarengatik, jasotzen dituen eskaintza anonimo guztiengatik, anekdota eta bizipen pertsonal ugari biltzen dituelako, masa produktu fetitxizatu bat izateagatik, berezko eta hartutako kontraesan ugariren amalgama bat izateagatik eta abarrengatik. Hainbeste arrazoi eta bat ere ez, Birjinak erakartzen nau, eta nahikoa dut hori. Gutxi axola du egia segururik ez egotea, esplikatzeko gai ez izatea, ezta horretarako interesik ez edukitzea ere, zergatik Birjina.

1. DERRIDA, Jacques. 1995. *Mal De Archivo: Una Impresión Freudiana. Madrid:* Trotta. 1997
2. BAL, Mieke. 1994. Telling objects: a narrative perspective on collecting. En: J. ELSNER and R. CARDINAL eds., *Cultures Of Collecting*, London: Reaktion Books, 97–115. or.
3. APPADURAI, Arjun. 2003. Archive and Aspiration. *Information is Alive*. Rotterdam: V2 Publishing.
4. DIROSA, Hervé, et al. 1997. *Les Cahiers De L'Art Modeste.* Blois: Musée au l`objet à Blois.

escena con todas sus preguntas, contradicciones y titubeos. Me interesa la virgen por sus implicaciones antropológicas en relación a lo femenino sagrado, por su utilización como arma de propaganda política por la Iglesia Católica, por su relación con el mito, por el fervor popular que suscita su devoción, por la ambigüedad de sus formas, por el papel que ha jugado su representación en la historia de la imagen, por los sincretismos que encierra, por la fascinación que suscita entre ciertos diseñadores actuales, por icono gay, por su perversión como símbolo de reivindicación del feminismo, porque apenas se nombra en la Biblia, por la infinidad de advocaciones que posee, por su papel crucial en las imposiciones coloniales, por todas las ofrendas anónimas que recibe, por ser un condensador de anécdotas y vivencias personales, por ser un producto de masas fetichizado, por amalgamar tantas contradicciones inherentes y adquiridas, etc. Tantas razones y ninguna, la virgen me atrae y eso me basta. Poco importa que no haya certezas, que no sea capaz de explicar, ni me interese hacerlo, por qué la Virgen.

1. DERRIDA, Jacques. 1995. Mal De Archivo: Una Impresión Freudiana. Madrid: Trotta. 1997
2. BAL, Mieke. 1994. Telling objects: a narrative perspective on collecting. En: J. ELSNER and R. CARDINAL eds., Cultures Of Collecting, London: Reaktion Books, pp. 97–115.
3. APPADURAI, Arjun. 2003. Archive and Aspiration. Information is Alive. Rotterdam: V2 Publishing.
4. DIROSA, Hervé, et al. 1997. *Les Cahiers De L'Art Modeste.* Blois: Musée au l`objet à Blois.

# EZ DA HAN TOKIRIK IZANGO INORENTZAT
# NO HABRÁ LUGAR ALLÍ PARA NINGUNO

Abel Jaramillo

*Ez da han tokirik izango inorentzat* inplikazio sozio-politikoak bilatzen ditu egunerokotasunetik, erakutsiz gai eta erabaki politikoek geure etxeko gauzetan aztarna nola uzten duten. Iraganaren eta orainaldiaren arteko dialogo etengabean, extremaduratar komunitatearen historia aztertzen du Extremaduraren irudi eta identitatearen eraikuntzaren berrikuspen kritiko baten bitartez. Proiektuak konexio horiei begiratzen die, modu kritikoan prekarietate eta morrontza erakusten duten ikus-entzunezko material, testu, irudi eta agiriak berrikusiz. Hortik abiatuta, baserritarren borrokak, poesia eta inauteria uztartzen dituzten askotariko planteamenduak sortzen dira, eta ibilaldi bat egiten da: gurtza erlijiosotik inauterien erritura, historia ofizialetik herri-kontakizunera, baserritar altxamenduetatik kultura ez-materialaren formetara. Herrikoia denak, bazterretako narrazioek, mitoen sorkuntzak, tradizioek eta kontraesanek narrazio hibrido bat eratzen dute, lurraldeei eta identitateei dagozkien tentsio politikoak agerian uzten dituena.

Proiektuaren asmoa da *beste* artxibategi bat sortu eta historiaren eraketa berriz pentsatzera gonbidatzea, ezikusia egin zaien komunitatearen beste alderdi batzuk aldarrikatuz eta zarata zena ahots bilakatuz. Eta zarataren erdian, inauteriaren danborrak. Festa, katamaloa, dantza, inauteria umotzeko prozesuek dakarten denboraz kanpoko denbora, horiek dira kontakizunaren bertsio ez ofizialera hurbiltzeko dugun bide zuzenena. Beharbada inauteria da fikzio errealena, eraikuntzatik, antzezpenetik, alde performatibotik abiatuz historia aztertzeko espazioa. Existitzen ez den inauteria izango da, eta izena jarri nahiko diozue.

*No habrá lugar allí para ninguno* consiste en la búsqueda de diferentes implicaciones socio-políticas desde lo cotidiano, planteando cómo las cuestiones y decisiones políticas se proyectan en lo doméstico. En un diálogo constante entre pasado y presente, indaga en la historia de la comunidad extremeña en una revisión crítica de la construcción de la imagen y la identidad de Extremadura. El proyecto aborda estas conexiones revisando de forma crítica material audiovisual, textos, imágenes y documentos en los que persiste una imagen de precariedad y servidumbre. A partir de este punto, surgen diferentes planteamientos que conectan las luchas campesinas, la poesía y el carnaval, transitando del culto religioso al rito carnavalesco, de la historia oficial al relato popular, de las revueltas campesinas a las formas de cultura inmaterial. Lo popular, las narraciones en los márgenes, la producción de mitos, tradiciones y contradicciones que configuran un relato híbrido que revela tensiones políticas que atañen a territorios e identidades.

El proyecto pretende generar un archivo *otro*, que invite a repensar la configuración de la historia, reivindicando otras facetas de la comunidad que han sido ignoradas, que lo que era ruido, sea voz. Y en mitad del ruido, los tambores del carnaval. La fiesta, la máscara, el baile, el tiempo fuera del tiempo que suponen los procesos de carnavalización, se presentan como la vía más certera de aproximarnos a una versión no oficial del relato. Es posible que el carnaval sea la ficción más real, un espacio desde el que analizar la historia partiendo de la construcción, de la representación, de lo performativo. Será un carnaval que no existe, y querrán ponerle nombre.


ABEL JARAMILLO
"NO HABRÁ LUGAR ALLÍ PARA NINGUNO"
REPRESENTACIONES DE LO EXTREMEÑO
LA RESISTENCIA COMO OPUESTO A LA IMAGEN OFICIAL
EL CINE HA CONSTRUIDO UN SUJETO PASIVO Y SUMISO
CÓMO Y DESDE DÓNDE SE CONSTRUYE LA HISTORIA
EL 25 DE MARZO DEL 36. ASALTO MASIVO A TIERRAS (60.000 PERSONAS)
CARNAVAL
LOS MASCARONES O JURAMACHOS
SE HACE 1 FINDE DESPUES DEL CARNAVAL

# QUINCHAHUE

Álvaro Aroca

## PRAKTIKA ARTISTIKOA IRAGANAREN KULTURAREN KULTU BIHURTUTA LATINOAMERIKAR ERRITUARI BURUZKO GOGOETAREN BITARTEZ DESKOLONIZAZIOKO ESTETIKEN TESTUINGURUAN.

Modernitatetik instituzionalizatutako europar pentsamenduaren nagusitasunak, herentzia ideologiko gisa, estetika utzi digu; izan eta sentitzearen esperientzia kolonialaren aztarna. Amerikar batentzat, zerbait edertzat, artisautzat edo artetzat edo besterik jotzeak kolonialtasun horretan du jatorria. Horregatik, estetika deskolonialak, Walter Mignoloren arabera, artearen arloan espazio bat izateko lehiatzera etorri dira. Estetika horiek zerikusia dute neurri handiagoan iraganaren gurtza (laburbilduz, izatearen kolonialtasunaren *ber-izaera*) esploratzen duten artistekin. Gurtza (kultu) horretan, gizabanakoak erabakitzen du azkenean egia zer den, zertan sinetsi eta zer praktikatu, bere menpeko identitatean, *zauri kolonialean* oinarrituz[1]. Hor sortzen da Quinchahue.

Beste garai, toki eta gorputzen ebokazioak eta diskurtso eurozentriko eta kolonialak erritu horiek garbitzeko dituzten formek baztertu egiten dituzte europar unibertsal zuri, katoliko eta patriarkaleko partaide ez direnen jakituriak. Nire zauri koloniala "senda*tzeko*" ebokazio estetikoa da. Era horretan, ekintzak/errituak eraikitzen ditut. Zerri buruak eta odola ber-esanahitzeko elementuak dira. Klimaxa, ekintza performatiboa.

1 Denbora lerrozuzenaren europar kontzeptuaren menpekoa eta, ondorioz, Amerikaren menpekotasuna dakarrena, iraultzatzat jotakoa. Hori bide da mundu modernoaren/kolonialaren zauriaren sorrera unea. Eta kontrako bi esanahi ditu: herri indigenentzat hondamendia da, haien bizia eta gizarte ehundura berrantolatu duen indarkeria; europarrentzat, berriz, Europaren historiaren eta haren kolonien artean ebaki bat irekitzen duen haien patu historikoa betetzea da, koloniak beti atzean izango diren arren, haiena ez den historia jarraitzen baitute. Walter Mignolo. *La idea de América Latina: la herida colonial y la opción decolonial (2005).*

## PRÁCTICA ARTÍSTICA COMO CULTO AL PASADO A TRAVÉS DE LA REFLEXIÓN DEL RITO LATINOAMERICANO EN EL CONTEXTO DE LAS ESTÉTICAS DECOLONIALES.

La hegemonía del pensamiento europeo institucionalizado desde la modernidad entrega como herencia ideológica la estética; impronta de la experiencia colonial del ser y sentir. Para el americanx considerar algo bello o no, artesanía o arte, etc., viene de esa colonialidad. Por eso las estéticas decoloniales, según Walter Mignolo, vienen a disputar un espacio en el campo del arte. Éstas se relacionan con artistas que exploran, en mayor medida, el culto al pasado. En definitiva, la *re-existencia* de la colonialidad del ser. En este culto es el individuo el que decide finalmente qué constituye la verdad, en qué creer y qué practicar, basándose en su identidad subyugada, la *herida colonial*[1]. Así nace Quinchahue.

Es la propia evocación de otros tiempos, lugares, cuerpos y la forma en que estos ritos son saneados por el discurso eurocéntrico y colonial que deja de lado los saberes de quienes no forman parte de un universal europeo blanco, católico y patriarcal. Es la evocación estética *para* "sanar" mi herida colonial. De esta manera construyo acciones/ritos. Cabezas de cerdo y sangre son utilizados como elementos de resignificación. El clímax, una acción performativa.

1 Al concepto europeo de la razón del tiempo rectilíneo y la dominación consiguiente de América considerada como una revolución. Constituiría el momento fundacional de la herida del mundo moderno/colonial. Este tiene significaciones opuestas: para los pueblos indígenas es un desastre, una violencia que reorganiza su vida y su tejido social; para los europeos el cumplimiento de su destino histórico que abre una brecha entre la historia de Europa y sus colonias, las que siempre estarán más atrás pues siguen una historia que no es la suya. Walter Mignolo. *La idea de América Latina: la herida colonial y la opción decolonial (2005).*


"QUINCHAHUE"
EN MAPUCHE UN LUGAR DONDE SE UNEN DOS COSAS
CULTO AL PASADO A PARTIR DE LA REFLEXIÓN
LOS RITOS
EL NGILLATÚN ROGATIVAS AL PILLÁN
LA EXPERIENCIA COLONIAL DEL SER Y DEL SENTIR
LA HERIDA COLONIAL
"CERDO" VIENE DE "SANCTUS"
PIROGRABADO DE SIGNOS MAPUCHES EN CERDOS
EMBALSAMO CORAZONES
ME EXTRAIGO SANGRE
ENTENDER MI PASADO PARA ENTENDER MI PRESENTE

# 131 PROIEKTUA · PROYECTO 131

Amaia Molinet

*131* izena hartu du Lodosa-Nafarroan 1936. urtean erail eta errepresaliatutako herritarren oroimenez eta gorazarrez 2013an egindako ekintza batek.

131 arrosa gorrik (bat erraildako pertsona bakoitzeko) zirkulu bat altxatzen dute lurretik, eta barrualdean isiltasuna adierazten duen hutsune bat uzten. Testu bat irakurriz ekintza testuinguruan jarri ostean, senitartekoek lore eskaintza bat egiten dute hurreko maiteen gorpuak datzaten panteoian, 1979tik berreskuratutakoa. Era horretan, oinaze aldi baten suspertze lana egin nahi da.

Ekintza hori testuinguruan jartzeko, ezin bestekoa da orain arte ezkutatuak izan diren gertaera historiko jakin batzuk aipatzea.

1936an, porrot egindako estatu kolpe batek Gerra Zibilari hasiera eman zion. Nafarroan, erregimen berri bat aldarrikatu zen, eta Mola jenerala izan zen altxamendu horren buruzagi. Era horretan, aginte politiko-militarreko kate arautu bat ezarri zen, eta desberdinak desagerrarazteko indarkeriaren erabilera sendotu zen.

Beharrezkoa da nabarmentzea Nafarroak ez zuela gerra fronterik izan eta, beraz, emakumeak zein gizonak aukeratu eta bide bazterretan zein zelaietan fusilatu zituzten, baita gero hilobi komunetan lurperatu ere.

Lodosako herrian, 131 pertsona fusilatu zituzten eta, demokraziarako trantsizio aldi arte, herritar lekukoak ez ziren gai izan isiltasuna hausteko eta, era horretan, senitartekoei hurreko maiteen gorpuzkien hilobi komunak non zeuden jakinarazteko.

1979an, hilerrian ekitaldi bat egin zen, 1936an eraildako 131 pertsonei panteoi hilobia eskaintzen eta, egungo egunean, Nafarroako Lodosa herrian frankismoaren biktima horiek omentzen ditu.

*131* es el nombre que recibe una acción realizada en 2013 en recuerdo y homenaje a los vecinos asesinados y represaliados en el año 1936 en Lodosa, Navarra.

131 rosas rojas, una por cada persona asesinada, construyen sobre la tierra un círculo que delimita en su interior un vacío que es silencio. Tras poner en contexto el acto mediante la lectura de un texto, se lleva a cabo una ofrenda floral por parte de los familiares al panteón donde se encuentran los restos de sus seres queridos desde su recuperación en 1979. Se trata de reparar así un periodo de dolor.

Para poner en contexto esta acción resulta necesario mencionar ciertos hechos históricos que habitualmente han sido ocultados.

En 1936 un golpe de estado fallido dio inicio a la Guerra Civil. En Navarra, se proclamó un nuevo régimen con el general Mola al mando de la sublevación, instaurando una pautada cadena de mando político-militar que se afianzó con el uso de la violencia para eliminar al diferente.

Es preciso recalcar que Navarra era un territorio que carecía de frente de guerra, por lo que hombres y mujeres inocentes fueron fusilados de forma selectiva en cunetas y descampados para ser enterrados en fosas comunes.

En la localidad de Lodosa fusilaron a 131 personas, y no fue hasta el periodo de transición a la democracia cuando los vecinos que fueron testigos de los hechos fueron capaces de romper el silencio, permitiendo a los familiares conocer los emplazamientos de las fosas comunes en las que se encontraban los restos de sus seres queridos.

En 1979 se celebró un acto en el cementerio, ofreciendo sepultura a las 131 personas asesinadas en 1936 en el panteón común que hoy en día conmemora a estas víctimas del franquismo en la localidad navarra de Lodosa.


AMAIA MOLINET
"PROYECTO 131"
FUSILADOS EN LODOSA (NAVARRA)
EN 1936 TENÍA 1000 HABITANTES
vídeo en YOUTUBE de 1979
EL CROMLECH COMO ELEMENTO FUNERARIO
EL CÍRCULO COMO LUGAR DE ENCUENTRO

# (O)CULTO

Histeria Kolektiboa

Testuari magia kendu zitzaionetik, zuhaitzek galdu egin dute haien itzala, urek indarra, eta suak balioa. Txoriek utzi egin diote kantatzeari, enbarazu egiten dute; usoek utzi diote berri onak ekartzeari, hiriko arratoi bihurtuta; behiek utzi diote sakratu izateari, torturatuak dira. Antropozentrismoa eguneroko zereginetako ohitura eta formetan azal, hezur eta gogo bihurtzen denetik, lurrak galdu egiten du handitasuna, misterioa eta errespetua, eta magia sineskor eta ezjakintzat jotakoen (hain sarritan emakumeen) artea izatera pasatzen da.

Belarrek (konprimitu formaz ez bada) sendatzeko balio ez dutenetik, eta erleak hil egiten direnetik, alkimia itzali egin da, talde biziraupenaren (eta taldean inguratzen gaituen guztia sartzen dut) oinarrizko printzipioak hil hala.

Filosofia ekonomiak ordezkatu du, artea etiketak, eta politika apatiak eta faxismoak. Horrek argi eta garbi erakusten du kultur imajinarioa ahulduta dagoela, eta gauzak egiteko denborek eta moduek zurrunbilo batera arrastatzen gaituztela. Horri lotuta dago, halaber, teknologiaren eta hartaz gizarteak zein gizabanakoek egiten dute erabileraren hedakuntza eta pertsonen egitura kognitibo eta existentzialean zein materialean izandako aldaketak, baita horiek ingurunean eragiten dituzten aldaketak ere. Bada, egoera horretan, bizi esperantzak Hondurasko baso erre baten eta urtegi hidrauliko baten forma hartzen du.

Munduari magia erantzi zitzaionetik, arteak ez du sendatzen, bereizi eta gaixotu baizik. Histeria Kolektiboa da pertsonen arteko alkimia sortzailea bilatzea eta lurra bere konplexutasunean errespetatzea.

Eta horregatik sorgin deitzen badigute, edo emakume histeriko edo neurotiko, ongi etorriak izan bitez hainbeste historia daukaten adjektibo horiek.

Desde que al mundo se le desposeyó de la magia, los árboles han perdido majestuosidad, las aguas fuerza y el fuego valor. Los pájaros han dejado de cantar para molestar, las palomas de traer buenas nuevas a ser ratas de ciudad, las vacas de ser sagradas a ser torturadas. Desde que el antropocentrismo se hace piel, hueso, masacre y espíritu en las costumbres y formas del quehacer cotidiano, la tierra pierde grandeza, misterio, respeto y la magia pasa a ser considerada arte para superticiosxs ignorantes, especialmente fáciles de encontrar entre las mujeres.

Desde que las hierbas no curan más que si están en forma de comprimido, los pimientos no portan semilla y las abejas mueren, la alquimia se apaga al compás que los principios esenciales para la supervivencia comunal (y en comunal incluyo todo lo que nos rodea) mueren.

Filosofía sustituida por economía, arte por etiqueta y política por apatía y fascismo, dan claras muestras del resentimiento del imaginario cultural que unido a la expansión de la tecnología y su uso social y personal, así como a los cambios en la estructura tanto cognitiva como existencial y material de las personas y las modificaciones del entorno que éstas provocan, nos lleva inevitablemente a una vorágine de tiempos y maneras de hacer donde la esperanza vital aparece en la forma de bosque arrasado y presa hidráulica en Honduras, por ejemplo.

Desde que al mundo se le desposeyó de la magia, el arte no sana ni une sino que separa y enferma. El objetivo de Histeria Kolektiboa es buscar la alquimia creadora entre las personas y respetar a la tierra en su complejidad.

Y si por esto nos llaman brujas, histéricas o neuróticas, bienvenidos sean adjetivos con tanta historia.


VERÓNICA MAS
de HISTERIAK KOLEKTIBOA
(6 CHICAS)
TRABAJAMOS CON LO QUE ESTA OCULTO
EL ARTE VIENE DEL RITUAL Y AHORA SE LE HA QUITADO LA MAGIA
"COMIENDO TUÉTANO" CON TERRY FLORIDO
LAS BRUJAS
LO CULTO Y LO OCULTO
SE REIVINDICA DESDE EL FEMINISMO ACTUAL
CONTROLABAN SU REPRODUCCIÓN
LAS MUJERES ARTISTAS TENEMOS UNA REPRESENTACIÓN ÍNFIMA
SOMOS CAMAS UTERINAS DE PROYECTOS
SILVIA FEDERICI "EL CALIBÁN Y LA BRUJA"
ENEKA
JOSUNE
MARÍA SALAZAR ES MI AMANTE PROFESIONAL
TXELU BALBOA

# IMAJINATZEN DUGU, IDAZTEN DUGU · IMAGINAMOS, ESCRIBIMOS

Ivan Gómez

*"Faustulok etxean hartu zituen, eta letretan hezi, borrokarako nahikoa trebetasun bai baitzituzten ordurako. Otsemearen omenez, Romulo eta Remo deitu zien. […] Ez zen erraza izan pizti txikiak hezten, batez ere haien marmarrak isiltzen. Etengabeko zainketak behar zituzten eta, batzuetan, koloka batean jartzen zuten Faustuloren egonarria. Orduan, arnaste metodikoko ariketetara jotzen zuen. Sakon arnas hartzen zuen, arnasari eutsi, eta bere baitarako errepikatzen zuen: 'Cogito, ergo sum, cogito, ergo sum',... Esaera horrek artzainek zuten goiburu bat ekartzen zion gogora. Bere burua estimatzen zuen edozein artzainek artaldea bere gain hartzen jakin behar zuen, baita antxumeen arteko harreman ona ere, eta eguraldi gaiztoa, harrapariak, lur agorra eta artilea kontuan hartzen, hori guztia bere beharrizanak bistatik galdu gabe noski. Ingurukoa eta bere burua zaintzeak (cogitare) aldartea baretzen zion gogoeta ontologiko bat zekarkion.*
*Zaintzen dut, beraz, banaiz".*

*Roma y Remoria* fanzineko pasarte itzulia.

*"Fáustulo los acogió en su casa y les educó en letras, suficientes habilidades parecían ya tener para la lucha. En recuerdo a La loba, llamó a estos Rómulo y Remo. […] No fue fácil domesticar, y sobre todo silenciar los continuos gruñidos de las pequeñas bestias. Requerían de cuidados constantes que a veces hacían desesperar la templanza de Fáustulo. Recurría entonces a sus ejercicios de respiraciones metódicas. Inspiraba hondo, aguantaba la respiración y repetía para sí 'Cogito, ergo sum, cogito, ergo sum',... Esta oración le recordaba una máxima entre los pastores. Un pastor que se preciase tenía que saber hacerse cargo del rebaño y también de la buena relación entre los corderos, así como tener en cuenta las inclemencias, los depredadores, la aridez del terreno y la lana, todo ello por supuesto, sin perder de vista sus propias necesidades. Cuidar (cogitare) de lo que le rodeaba y de él mismo, le procuraban una reflexión ontológica que apaciguaba sus ánimos.*
*Cuido, luego existo".*

Extracto del Fanzine *Roma y Remoria*.

Mitoek, fikzio poetikoan, balio zuten egia ezkutuak, izaera ezjakineko gertaerak, arrazoiaz haraindi argitzeko. Genero literario horren bitartez, tradizioa transmititu egiten zen, gurtza zabaltzen zen, baita jainkoen kultua ere. Bada lotura estu bat zerbait jainkotiarraren (ezkutuaren) eta irudiaren artean. Fikzioa diren aldetik, mitoek ezkutuari buruzko irudiak imajinatu, sortu egiten zituzten.

Egia da denborak eta tenpluak aldatu egin direla. Artea mitotik eta erritutik (erlijiosotik) askatu da aspalditik, baina oraindik uste dugu posible dela beste mundu bat eta, neurri batean, gure erantzukizuna da eskari horri irudia ematea, dela kritika zorrotzenen bidez, dela proposamen utopikoen bitartez.

Imajinatzen dugu, idatzi, egunero egiten ditugu fede ekintzak.

Los mitos, en su ficción poética, servían para esclarecer verdades ocultas *más allá de la razón, hechos de naturaleza incierta*. A través de este género literario se transmitía la tradición, se infundía veneración y culto a las divinidades. Hay una fuerte relación entre lo divino (lo oculto) y la imagen. En tanto ficción los mitos imaginaban, generaban imágenes sobre lo oculto.

Es cierto que los tiempos y los templos han cambiado. El arte se desligó del mito y del rito (religioso) hace tiempo, pero aún creemos que otro mundo es posible. Y es, en cierta medida, nuestra responsabilidad dar imagen a esta demanda, ya sea desde las críticas más feroces, como desde las propuestas más utópicas.

Imaginamos, escribimos, hacemos actos de fe cada día.


UNA VEZ CADA DOS AÑOS, EN INMERSIONES ME ROZO CON EL ARTE CONTEM-PORÁNEO
NO ME HE PREPARAU NADA
VOY A IMPROVISAR
LA FISICIDAD
IVÁN GOMEZ
EL "FANTASMATA" DE ARISTÓTELES COMO CONSTRUCCIÓN MENTAL
EL PENSAMIENTO SE PRODUCE A PARTIR DE IMÁGENES
"LAS ESTATUAS TAMBIEN MUEREN"
KRISH MARKEL
RÓMULO FUNDÓ ROMA REMO HABRÍA PODIDO FUNDAR REMORIA
VIAJAS LIGERO DE EQUIPAJE PERO... ¿TE PESAN TUS RECUERDOS?

# ERRITUALAK · RITUALES

Terri Florido

## ERRITUALEN FUNTZIOA GIZABANAKO EDO KOMUNITATEA SENDATZEA DA.

Erritualek gizabanakoak edo komunitateak errealitate batera egokitzen dituzte, errealitate dinamiko, aldakor eta ziklíko batera. Mundu ikuskera horretan, bizi zikloetan, heriotza ere badago, eta denbora antzemateko modua ere ziklikoa da.

Industria aurreko giza komunitateek ohikoak dituzte igarotze errituak. Igarotze erritu horietan, haurrek haurtzaroa atzean uzten dute, heldu bilakatzen dira. Horrek esan nahi du haien balioak deskubritzeko erronkari eta komunitate barruan bete beharreko haien funtzioari aurre egin behar diotela.

Giza komunitateak gizaki osoek, kontzienteek eta ahaltsuek osatzen dituzte. Komunitateak, biltzen dituen errealitatera egokitzen dira, beren habitatean integratzen, iraunkorrak dira sostengatzen dituzten denboran eta ingurumenean.

Egun nagusitzen den zibilizazio harraparian, denboraren pertzepzioa lineala da, infiniturako joera du. Betierekotasuneko edo heriotzaren absentziarako joera hori da infinituruntz aurreratzeko modua ematen duten ilusioetako bat.

Zibilizazio industriala ere bada komunitate motaren bat, era horretako gizakiz osatua (larritasunez eta antsiaz bizirauten dugu). Zibilizazioak gogor egiten dio atzean nerabezaroa uzteari, mugagabeko hazkuntzaren ilusioari lotzen zaio eta, era horretan eta ezerk eragozten ez badu, ezin bestean goaz geure burua masan galaraztera.

## LA FUNCIÓN DE LOS RITUALES ES SANAR AL INDIVIDUO O SANAR LA COMUNIDAD.

Rituales como ajuste de individuos o comunidades a una realidad: dinámica, cambiante y cíclica responden a una cosmovisión en la que los ciclos vitales incluyen la muerte; la percepción del tiempo también es cíclica.

Los rituales de paso son típicos de comunidades humanas preindustriales; en estos ritos de paso los infantes dejan atrás la niñez, se hacen adultos. Esto significa que deben enfrentarse al reto de descubrir sus valías y cuál es la función que han de ocupar en la comunidad.

Comunidades humanas integradas por individuos completos, conscientes y poderosos. Comunidades que se adaptan a la realidad que las contiene, integradas en su hábitat, sostenibles en el tiempo y en el medio ambiente que las sustenta.

En la civilización depredadora imperante, la percepción del tiempo es lineal, tiende al infinito. Esta tendencia hacia la eternidad o ausencia de muerte es una de las ilusiones que permiten esa progresión hacia el infinito.

